

Xedea

Dokumentu honetan inbertsio produktu honi buruz ezagutu beharko zenukeen oinarrizko informazioa aurkituko duzu. Ez da material komertziala. Legeak ezartzen duen informazioa da, produktu honen izaera, arriskuak, kostuak eta irabazia zein galera potentzialak ulertzen laguntzeko eta beste produktu batzuekin partekatzen laguntzeko.

Produktua

Izena:	04 / 2027 Europako Burtza Gordailua
Identifikadorea:	NOE 30084
Fabrikatzailea:	Banco de Sabadell, S.A. IFZ A08000143
Harremanetarako datuak:	https://www.bancosabadell.com/cs/Satellite/SabAtl/Documentacion-PRIIIPS/2000025609204/es/
Telefonoa:	963 085 000; Espainia kanpotik deitzen baduzu: +34 935 916 360
Agintari eskuduna:	Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala
ODD ekoizpen data:	2022ko apirilaren 11

Erostera zoazen produktua ez da erraza. Zaila izan daiteke ulertzea.

Zer da produktu hau?

Mota

Gordailu Egituratu

Xedea

Produktuaren xedea azpiko baten edo batzuen jokaerari lotutako finantza-tresna batean inbertitzea da, errentagarritasuna lortzeko. Jarraian aipatzen diren zenbatekoak zuk inbertitutako Zenbateko Nominal bakoitzari dagozkio. Kalkulu-agenteak zehaztuko ditu zenbatekoak.

Azpikoak

Errendimendua EURO STOXX® BANKS Index-i (Bloomberg-SX7E Index)* erreferentziatuta dago.

Nola zehazten da etekina?

- Behaketa-data bakoitzean, azpikoaren itxiera-prezioa Hasierako Mailaren berdina edo handiagoa bada, Zenbateko Nominalaren gaineko % 0,55eko kupoia jasoko duzu dagokion likidazio-datan. Bestela, Zenbateko Nominalaren gaineko % 0,15eko kupoia jasoko duzu.
- Epemugan, Zenbateko Nominala berreskuratuko duzu.

Oinarrizko datak eta datuak

- Kalkulu-agentea: Banco de Sabadell, S.A.
- Gutxieneko Zenbateko Nominala: 1.000 euro
- Jaulkipen-data: 2022ko apirilak 13
- Iraungitze-data: 2027ko apirilak 13
- Hasierako maila: Azpikoaren itxiera-prezioa Hasierako Behaketa Datan
- Bukaerako maila: Azpikoaren itxiera-prezioa Azken Behaketa Datan
- Behaketa Datak:
 - Hasierako Behaketa Data: 2022ko apirilak 13
 - Kupoiaren Behaketa Datak: 5 lanegun Likidazio-data bakoitzaren eta Azken Behaketa Dataren aurretik
 - Azken Behaketa Data: 2027ko apirilak 06
- Likidazio-datak: apirilak 13 guztiak, Iraungitze-datara arte. Asteburua edo jaieguna izango balitz, Modified Following arauari jarraituko zaio.

Zein txikizkako inbertitzaileri dago zuzenduta?

Funtsean hauei zuzendutako produktua: Produktuan edo antzeko produktuetan alde aurreko ezagutza- edo esperientzia-maila ertaina duen edozein bezerori, galerak bere gain hartzeko gaitasunik gabe, eta bere arrisku-profila <<arrisku txikia>> bada. Era berean, xede-bezeroen inbertsio-helburuak produktuaren epemugarekin koherentea den inbertsio-epeari lotuta egongo dira, eragiketaren helburua kapitala babestea izango da, eta zerbitzua honelakoa izango da: egikaritze hutseko zerbitzua (txikizkako bezeroak izan ezik), komenentzia-testa duen egikaritze hutseko zerbitzua, aholkularitza independentekoa, aholkularitza ez-independentekoa eta zorroen kudeaketa diskrezionaleko zerbitzua.

Zein arrisku ditut eta zer lor dezaket horren truk?

Arriskuaren adierazlea

Arriskurik txikiena

1

2

3

4

5

6

7

Arriskurik handiena



Arriskuen adierazleak produktua 2027ko apirilaren 13ra arte edukiko duzula ulertzen du. Ezingo duzu alde aurretik utzi.

Arriskuaren adierazle laburtua beste produktuekiko produktu honen arrisku maila alderatzen duen gida da. Produktuak merkatuen eboluzioaren ondorioz edo guk ordaindu ezin dugulako dirua galtzeko aukerak bistaratzen ditu. Produktua 2 arrisku-motaren arabera sailkatu dugu 7ra arteko eskalan, non 2 <<arrisku txikia>> den. Horretarako, bi elementu hartzen dira kontuan: 1) merkatuaren arriskua (azpikoaren hegazkortasun arriskua eta interes tasaren arriskua): etorkizuneko jokabidearen ondorioz gerta daitezkeen galerak arrisku txikiko gisa sailkatzea; eta 2) kreditu-arriskua eta merkatuaren egoera txarrak Bankuak zuri ordaintzeko duen ahalmenean eragina izateko probabilitatea oso txikia izatea. Kreditu-erakundeak eta inbertsio-zerbitzuetako enpresak berregituratzeko eta suntsiarazteko Europako 2014/59/EB Zuzentaraua aplikatuz, ebazpen-agintariak birkapitalizatu beharreko finantza-tresnak beste balore batzuetan amortizatzea eta/edo bihurtzea edo jaulkitzailearen aktiboak eta/edo

negozio-unitateak transmititzea erabakitzeke arriskua. Kapitalaren % 100 edo gehiago berreskuratzeko eskubidea du. Zenbateko horren gainetik dagoen kantitate oro, eta etekin osagarri oro, merkatuaren etorkizuneko eboluzioaren mende daude, eta ez dira ziurrak. Ezingo bagenizu zor dizuguna ordaindu, inbertsio osoa gal zenezake. Hala ere, kontsumitzailearen babes-araubidea izan dezakezu (ikus itaial hau: «Zer gertatzen da ezin badizugu ordaindu»). Aurreko adierazleak ez du babes hori kontuan hartzen.

Errentagarritasun-egoerak

Ezin da zehazki aurreikusi etorkizunean merkatuak zein eboluzio izango duen. Barne hartzen diren egoerak, azken etekinak oinarritzat hartuz izan daitezkeen emaitza posibleetako batzuen adierazpen soila dira. Benetako etekinak txikiagoak izan daitezke.

Inbertsioa (10.000 euro)		1 urte	3 urte	5 urte Gomendatutako mantentze-aldia
Tentsio-egoera	Kostuak kendu ondoren jaso ahal izango dena	9.451 euro	9.757 euro	10.077 euro
	Urteko batez besteko etekina	-% 5,49	-% 0,82	% 0,15
Egoera txarra	Kostuak kendu ondoren jaso ahal izango dena	9.427 euro	9.772 euro	10.077 euro
	Urteko batez besteko etekina	-% 5,28	-% 0,77	% 0,15
Tarteko egoera	Kostuak kendu ondoren jaso ahal izango dena	9.526 euro	9.826 euro	10.120 euro
	Urteko batez besteko etekina	-% 4,74	-% 0,58	% 0,24
Aldeko egoera	Kostuak kendu ondoren jaso ahal izango dena	9.604 euro	9.945 euro	10.284 euro
	Urteko batez besteko etekina	-% 3,96	-% 0,18	% 0,56

Aurreko egoeretan, aurrez definitutako behaketa-datetan lortutako balizko fluxuak (kupoiak eta/edo autobaliogabetzea) arriskurik gabeko tasan berrinbertitu daitezke, gomendatutako inbertsio-aldira arte.

Taula honetan hurrengo 5 urteetan zehar jaso ahal izango zenukeen dirua adierazten da, egoera desberdinen arabera eta 10.000 euro inbertitzen dituzula ulertuta. Aurkeztutako egoerek zure inbertsioek izan dezaketen errentagarritasuna azaltzen dute. Beste produktu batzuen egoerekin alderatu ditzakezu. Aurkeztutako egoerentarako etorkizuneko errentagarritasuna kalkulatu da, inbertsio horrek iraganean izan duen aldaketaren datuetan oinarrituta, eta beraz, egoera horiek ez dira adierazle zehatzak. Jasoko duzuna aldatu egingo da merkatuaren bilakaeraren eta inbertsioa edo produktua mantentzen duzun denboraren arabera. Tentsio-egoerak merkatuen muturreko zirkunstantzian jaso dezakezuna adierazten du, eta ez du kontuan izaten guk zuri ordaindu ezin dizugun egoera bat. Produktu hau ezin da efektibo bihurtu. Hau da, zaila da iraungi aurretik saltzen baduzu jasoko zenukeen kantitatea zein den zehaztea. Lehenago ezingo duzu saldu edo garesti ordaindu beharko duzu edo galera handia izango duzu eginez gero.

Aurkeztutako zifrek produktuaren kostu guztiak hartzen dituzte, baita zure aholkulariaren edo banatzailearen kostuak ere. Zifrek ez dute kontuan hartzen zure zerga egoera pertsonala, zeinak eragina izan dezakeen jasoko duzun zenbatekoan.

Zer gertatuko litzateke Banco de Sabadell, S.A.-k ordaindu ezingo balu?

Banco Sabadellek ezin badizu ordaindu Kreditu Erakundearen Gordailuak Bermatzeko Funtsak (www.fgd.es) bermatzen dizu sartutako itzuliko dizula, 100.000 euro arte (edo haren kontrabaloia eurotan, gordailuak beste dibisa batean egin badira), gordailugile eta kreditu-erakunde bakoitzeko. Kontuan hartu Banco Sabadellek, kreditu-erakunde den heinean, Banco Sabadell, SabadellUrquijo eta Activobank markak dituela, eta zuk kreditu-erakunde berean gordailu bat baino gehiago badituzu, zenbatekoak batuko direla eta 100.000 euroko muga hori izango dutela erakundeko. Bestalde, beste pertsona batzuekin badituzu kontuak, 100.000 euroko muga gordailugile bakoitzari aplikatu zaio. Dena den, sozietate, elkarte edo antzeko erakunde bateko bazkide edo kideak izateagatik bi pertsonak edo gehiagok badituzte eskubideak kontuan, gordailuak gehituko dira, eta titular batek bakarrik egin dituela hartuko da. Berme hori kontuko saldoetan eta diruzko gordailuetan bakarrik aplikatzen da, bai sinpleetan, bai egituratuetan. Horrenbestez, beste produktu batzuk ez dira barne hartuko, eta dagokien itzultze araubidea izango dute.

Zein dira kostuak?

Etekinaren murrizketak (RIY) zuk ordaintzen dituzun kostu osoek lor dezakezun inbertsioaren etekinean duen eragina adierazten du. Kostu osoek kostu bakunak, ohikoak eta osagarriak hartzen dituzte kontuan.

Hemen adierazitako zenbatekoak hiru mantentze aldiri dagozkien produktuaren kostu metatuak dira. Barne hartzen dira aurretik irteteagatik gerta daitezkeen penalizazioak. Zifrek zuk 10.000 euro inbertituko dituzula aurreikusten dute. Zifrak aurreikuspenak dira, beraz, etorkizunean alda daitezke.

Kostuak denboran zehar

Inbertsioa (10.000 euro)			
Egoerak	Irteera 1 urteren ondoren	Irteera 3 urteren ondoren	Irteerarekin (gomendatutako mantentze-aldiaren bukaeran)
Kostu osoak	693,08 euro	693,08 euro	693,08 euro
Urteko etekineko murrizketan duen eragina	% 7,09	% 2,41	% 1,45

Kostuen osaera

Hurrengo koadroak hauxe adierazten du:

- Kostu mota desberdinek inbertsioaren etekinean izan dezaketen urte bakoitzeko inpaktua gomendatutako mantentze-aldiaren bukaeran;
- Kostuen kategorien esanahia.

Koadro honetan urteko etekinean duen eragina ikus daiteke

Kostu bakunak	Sarrera-kostuak	% 1,45	Inbertsioa egiten duzunean ordaintzen dituzun kostuen inpaktua. Kostuen inpaktua prezioan sartuta dago. Kantitate honetan zure produktuaren banaketa kostuak sartzen dira.
	Irteera kostuak	EA	Iraungitze datan bere inbertsioaren irteera kostuen inpaktua.
Ohiko kostuak	Zorroaren eragiketen kostuak	EA	Guretzat produktuaren azpiko inbertsioen erosketak eta salmentak izango duten kostuen inpaktua.
	Beste ohiko kostu batzuk	EA	Zure inbertsioen kudeaketaren urteko kostuen eta II. atalean bildutako kostuen inpaktua.
Kostu osagarriak	Etekin-komisioak	EA	Ez dagokio (EA)
	Partaidetzak kontuan	EA	Ez dagokio (EA)

Zenbat denboraz eduki behar dut inbertsioa, eta dirua lehenago atera dezaket?

Gomendatutako mantentze-aldia: 5 urte

Gomendatutako mantentze-aldia produktuaren iraungitze datari dagokio. Arren, kontuan izan produktua iraungitze-dataren aurretik baliogabetzea ez dagoela baimenduta, likidezirik ez duelako.

Nola erreklama dezaket?

Produktu honen edo jasotako zerbitzuaren inguruan kezarik edo erreklamaziorik aurkeztu nahi baduzu, Bezeroen Arreta Zerbitzuarekin jar zaitezke harremanetan, <https://www.bancsabadell.com> guneko harremanetarako formularioaren bitartez edota postaz, hurrengo helbidean: Bezeroen Arreta Zerbitzua - Banco Sabadell Gunea, Can Sant Joan industrialdea. Calle Sena, 12, 08174 Sant Cugat del Vallès edota posta elektronikoko bidez, hurrengo helbidean: SAC@bancsabadell.com, baliabide honen erabilera 59/2003 Legearen arabera denean, abenduaren 19koa, sinadura elektronikokoa. BAZari erreklamatu ondoren, badago BMNBari erreklamatzeko aukera.

Beste datu interesgarri batzuk

Dokumentu honen osagarri gisa, kontratuaren aurreko informazio Fitxa ere emango dizugu. Fitxa horretan, produktu honi buruzko informazioa jasotzen da, Espainiako Bankuaren ekainaren 27ko 5/2012 Zirkularren baldintzen arabera. KID honetan egin daitekeen ekintza oro Banco Sabadell web orrian edo BS Online webgunean egongo da eskuragarri, bezeroaren posizioko kontuan.

* EURO STOXX® BANKS Index Deutsche Börse taldearen barruan dagoen STOXX Limited-en marka da.